

EZKIO-ITSASO: GERTU ETA EZEZAGUN

·Zuek bai jakin!: Anjel Erratzu ·Elkarrizketa: Iñaki Zabala ·Izerdi patsetan: Xabier Murugarren, Athleticetik Urolara ·Boteprontoan: Eduardo Elias

# Otamotz

Herri Aldizkaria

2008ko

martxoa

135. alea



# Urretxu-Zumarragako euskal eskola publikoa: urtez urte hazten eta hobetzen



**Matrikula epea:**  
**Martxoaren 31tik apirilaren 11ra**



Tel.-fax: 943 72 12 14  
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net  
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13  
e-mail: jmiparragirre@edunet.es  
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Ezkio-Itsaso: gertu eta ezezagun
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Ezkio-Itsasora sarritan joaten al zara? Zertara?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 14 Erreportajea**  
Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**  
Javi Alonso
- 18 Zuek bai jakin!**  
Anjel Erratzu
- 23 Elkarrizketa**  
Iñaki Zabala (Urola Garaia: zer da eta nora doa?)
- 26 Izerdi patsetan**  
Xabier Murugarren: Athleticetik Urolara
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**  
Eduardo Elias




Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

# Ezkio-Itsaso: gertu eta ezezagun

*Ezkio-Itsaso Urretxu eta Zumarragatik gertuen dagoen herria da. Eskualde eta mankomunitate berean dago eta herritar askok bertako enpresetan egiten dute lan. Beste batzuk hara joan dira bizitzera. Hala ere, urretxuar eta zumarragar askok apenas ezagutzen dute. Izan ere, egungo aisialdi ohiturak medio, arruntagoa da Donostiara zinera joatea Ezkioko ostatuan kafea hartzea baino. Aldameneko herria apur bat hobeto ezagutzeko, bere Web orriko informazioa bildu eta bertako lau lagunekin hitz egin dugu.*

Argazkiak: Gotzon Aranburu.



Ezkiori buruzko lehen agiria 1385ekoa da, Urretxuri elkartu zitzaionekoa. Banantze dataren berririk ez dago, ordea. Itsaso izena ere garai hartako agiri batean azaltzen da lehenengoz. XVII. mendean, berriz, Arriaranekin udalerrri bakarra osatu zuen. Ordurako Ezkion Santa Lutzitako feria egiten zela uste da. 1726an Iruñeko gotzaina bertatik pasatu zen, emakumezkoek eta gizonezkoek gauak ermitan elkarrekin egiten zituztela ikusi zuen eta feria bertan egitearen aurka azaldu zen. Urretxuk feria bertan antolatzea eskatu zuen eta onartu egin zen.

Beste gertakari historiko garrantzitsu bat Amabirjinaren agerpenei dagokiena da. 1931ko ekainaren 30ean ikusi zuten lehenengoz Amabirjina Bereziartu anaia-arrebek. Erromesaldiak hasi ziren eta Ezkio milaka lagun bilgune bihurtu zen. Askok espasmoak, histeria-erasoak eta konortegaltzeak izan zituzten. Starkie hispanista irlandarrak ere herria bisitatu zuen eta tradizionalistek eta eskuindarrek Ezkioko gertakaria euren mesedetan puzten ari zirela ondorioztatu zuen. 1933ko ekainean Ezkion basilika bat egitea debekatu zen eta irailean elizak behin betiko gaitzespena eman zion bertako jazotzen ari zenari. Dena den, oraindik hileko bigarren igandean jendea elkartzen da Anduagako zelaietan arrosarioa erreztatzeko.

Garrantzizko azken gertakari historikoa Ezkio eta Itsasoren elkartzea da. Bi herriek 1965ean bat egin zuten. Egun Ezkio-Itsasok 21 kilometro koadro ditu, bost auzotan banatuta: Ezkio, Itsaso, Alegi, Santa Lutzin eta Mandubia. Matximentaren zati bat ere berari dagokio eta Arriaran, berriz, Beasain izatera pasatu zen 1927. urtean. Beasain, Ormaiztegi,

Gabiria, Azpeitia eta Zumarraga ditu inguruan. Herriko punturik altuena Izazpi mendia da, nahiz eta askok oraindik Zumarragan dagoela pentsatu.

Biztanleriari dagokionez, Ezkio-Itsasok 500 bizilagun pasatxo ditu. Asko baserrietan bizi dira, baina geroz eta etxebizitza gehiago daude. Aipatzekoa da XX. mende hasieran ia 1.400 biztanle zituela: Urretxuk gutxiago zituen eta Zumarragak 2.000 besterik ez oraindik. 80ko hamarkada arte biztanle kopuruak etengabe behera egin zuen, baina ordutik eustea lortu dute. Datozen urteetan haztea espero da, etxebizitza egiten ari baitira.


Dena den, Ezkio-Itsasok aspaldi hasi zuen bere bilakaera. Bi udalerriak elkartu aurretik baserriak eta nekazaritza ziren nagusi, baina 60ko hamarkadan Santa Lutzin-Anduagako haranean industriak ezartzen hasi ziren. Urretxu eta Zumarragatik joan ziren gehienbat. Ordutik herriaren behealdeak sekulako aldaketa jasan du, industria eta azpiegituren eraginez. Gehiago aldatuko da, jarduera ekonomikoetara baldintza orografiko onak eskaintzen baititu eta Abiadura Handiko Trenaren geltokia jarri nahi baita. Goialdeak, berriz, garai bateko izaera mantentzen du eta hala jarraitzea nahi da. Hala, Ezkio-Itsaso egungo bizimoduaren eta tradizionalaren arteko konbinaketa da. Industriaz gain, herritarrentzat zerbitzuak ere badaude noski. Santa Lutzin Zahar etxean liburutegia dago eta kultur etxe modura ere erabiltzen da. Bertan elkartzen dira Yartu kultur elkarteko kideak. Kirol instalazioei dagokienez, Santa Lutzin pista polibalentea dute eta Alegin urretxuar eta zumarragar askok erabiltzen duten pilotaleku estalia.

Eraikin erlijiosoen faltan ere ez dira, zazpi baitira: Ezkioko Migel deunaren eliza eta Santa Marinako ermita, Santa Lutzin eliza, Alegikoa, Itsasokoa eta San Lorentzoko eta Kizkitzako ermitak. Horrez gain, Amabirjina azaldu omen zen tokian irudia eta erreztatzeko estalpea daude. Itsasoko elizako kanpandorreko erlojua 1730. urtekoa da eta horrenbestez Gipuzkoako zaharrenetakoa.

Beste monumentu batzuk ere badaude. Ezagunena Igartubeiti baserria da. XVI. mendekoa da eta oso gutxi aldatu da egin zenetik. Hori dela eta, Aldundiak garai bateko bizimodua nolakoa zen erakusteko erosi zuen. Mandubi-zelaiak trikuharria ere aipagarria da. Mandubitik Kizkitzara doan bidean dago eta bertan Kristo aurreko II. milurteko tresnak aurkitu ziren. Haritzizabal baserria eta Pott tailerra ere aipatzekoak dira. Batean ogia egiten dute bestean zeramika lantzen dute. Bietan bisitak hartzen dituzte, aurretik deituta.

Beste era bateko turismoa nahiago dutenek, makina bat festa aurkituko dituzte Ezkio-Itsason. Ez da harriztekoa, auzo bakoitzak bere jaiak baititu. Ezkion San Migel eguna ospatzen da maiatzaren 8an, Santa Lutzin San Pedro eguna ekainaren 29an, Alegin Santa Maria Magdalenari dagokiona uztailaren 22an eta Itsason San Bartolome abuztuaren 24an. Horretaz gain, irailean 8an erromeria izaten da Kizkitzan. Festa egun hauetarako guztietarako hainbat ekitaldi antolatzen dira eta jatekorik eta edatekorik ez dira falta noski. Dena den, Ezkio-Itsason urte guztian dago ondo jateko eta edateko aukera. Izan ere, hainbat taberna eta jatetxe dituzte. Erakargarrienak Ezkioko, Itsasoko eta Mandubiko ostatuak dira.

## Bost auzotan sakabanatuta bizi diren herritarrak elkartuz hamaika erronkari aurre egiteko lan egiten ari den herria



Aitziber Etxezarreta, Ruth Idiakez, Tomas Etxaniz eta Pilare Mujika, kultur etxearen aurrean.

Ezkio-Itsaso zer den eta bertako bizimodua nolakoa den jakiteko modurik onena bertara joatea eta bizilagunekin hitz egitea da, noski. Santa Lutzi auzoko kultur etxean izan gara ondoko herriko lau lagunekin: Ezkioko Aitziber Etxezarreta, Tomas Etxaniz eta Ruth Idiakezekin eta Itsasoko Pilare Mujikarekin. Lauak herria suspertzeko lan itzela egiten ari den Yartu kultur elkarteko kideak dira.

### Zer esango zeniekete urretxuar eta zumarragarrei Ezkio-Itsasori buruz?

Aitziber Etxezarreta (A.E.): Hasteko, bizitza duen herri txiki bat dela esango nieke. Ez dela Zumarragako auzo bat.

Askorentzat gure herria “aldapa jaitsi eta hor dagoen hori” besterik ez da.

Tomas Etxaniz (T.E.): Legazpi, Urretxu eta Zumarraga 10.000 biztanleren bueltan dabilta eta jende askok ez daki zer den 500 biztanleko herri bat. Hiritar bati zaila egiten zaio herri txiki baten izaera ulertzea. Gainera, bi herriren batura gara eta gune oso sakabanatuak ditugu.

### Ez al da tristea urretxuar eta zumarragar askok zuen herria horren gutxi ezagutzea?

A.E.: Ezagutu, ezagutzen gaituzte. Badakite hemen zer edo zer dagoela, baina hemen dagoen hori herri bat dela ez zaie buruan sartzen.

T.E.: Normala dela uste dut. Tolosarrei Leaburuz edo Hernialdez galdetuz gero ezer gutxi esango dute.

Ruth Idiakez (R.I.): Ez dute hona etortzeko beharrik.

A.E.: Ez da herri txikiakin bakarrik gertatzen. Donostiarrek badakite Bergara non dagoen, baina ez dute ezagutzen.

Pilare Mujika (P.M.): Ezagutzea tokian tokikoekin harremana izatea da.

T.E.: Hor dago koska. Zer lotura du Ezkio-Itsasok Legazpi, Urretxu eta Zumarragarekin? Non elkartzen gara? Eskolei dagokienez, adibidez, sakabanatuta gaude. Sare publikoan dagokigun eskola Ormaiztegiakoa da, baina ikastola indartsua Urretxukoa dugu. Lan munduari dagokionez, oso gutxi lan egiten dugu herrian bertan.

### Herri sakabanatua duzue eta erdibidean egoteak are gehiago banatzen zaituzte, beraz.

A.E.: Edozein zerbitzuren bila kanpora joan beharra dugu eta beharren arabera gora edo behera jotzen dugu.

P.M.: Ezkiok eta Itsasok joera ezberdinak dituzte. Ezkiokoek gehiago jotzen duzue Urretxu eta Zumarragara eta guk Beasain edo Ordiziara. Halakoxe herria dugu. Ez da arazoa, gure egoera baizik.

### Egoera hori ahalik eta hobekien eramaten saiatzen zarete, noski. Bizilagunek elkar ezagutzeko hainbat ekimen antolatzen dituzue.

A.E.: Ekintzak antolatzen ditugu topaguneak sortzeko. Guztiok elkartuko gaituen

eskola, taberna edo denda ez dugunez, beste era batera egiten dugu.

P.M.: Nahi hori oso barneratuta dugu. Lan handia egiten dugu ekitaldiak antolatzeke eta jendeak beraietan parte hartzea lortzeko. Asmatzen ari garela esango nuke.

**Zer ekimen dituzue?**

P.M.: Ekimen nagusia kultur elkarte bera da. Ekintza asko antolatzen ditugu, erritmoa hartu dugu eta sarituak sentitzen gara. Urte guztian antolatzen ditugu ekintzak: ikastaroak, antzerki saioak, erakusketak...

**Herritarrak elkartzeko behar horretatik sortu al zen Yartu kultur elkarte?**

P.M.: Egia esan, Igartubeiti baserriaren inguruan sortu zen. Dena den, helburu bakarra ez zen Igartubeiti sustatzea; baita kultura bultzatzea ere. Igartubeitik ere asko biltzen gaitu: Sagardo Astea, bertan ekoizten dugun sagardoa botilatan sartzeara... Gure artean sare indartsu bat dugu. laztik, gainera, auzolana bultzatzen ari gara.

T.E.: Herri honetan beste batzuetan lortu ez dutena lortu dugu: belaunaldi ezberdinetako jendea elkartzeara. Yartuk ekitaldi guztietan adin ezberdinetako jendea elkartzeara lortu du. Herri handietan hori ezinezkoa da.

P.M.: Duela urte batzuk antzezlan bat prestatu genuen eta herriko haurrak eta zaharrak elkarrekin antzerkia egiten ikustea oso hunkigarria izan zen. Ekitaldi hura idealizatuta daukat: elkartasunaren eta musu-truk egindako lanaren eredu izan zen.

**Herri parte hartzailea duzue, beraz.**

A.E.: Hala da. Ekitaldi guztietan gutxi gaudela esaten dugu, baina propor-

tzioan herri handietan baino askoz ere partaidetza handiagoa izaten dugu.

**Azken urteotan Urretxu eta Zumarragako jende dezente etorri da Ezkio-Itsasora bizitzera. Horiek ere parte hartzen al dute?**

A.E.: Denetik dago. Batzuk integratu dira, baina auzune osoak eratu dira eta horietan bizi diren batzuk ez dira integratu. Herriko giroan ez dira murgiltzen. Banaka etorri direnak edo baserri-inguruan jarri direnak hobeto integratu dira.

P.M.: Eraikinak berak erakusten du hori: bizkarra ematen dute, setiatuta daude...

**Pilare Mujika:**

*“60 bat haur bizi dira herrian, baina eskolarik ez dugu. Hori da gure tragedia”*

Egungo joera da: urbanoa dena landatar gunetara eramatea. Kontraesankorra da.

A.E.: Herri guztietan gertatzen da: bloke berrietan inork ez du elkar ezagutzen.

P.M.: Dena den, beti izan ditugu kontuan gure asmoetan. Bloke horietan bizi direnek haurrak ludotekara ekarri dituzte, baina hazi direnean galdu egin ditugu. Ez dugu nahikoa denbora izan lotura hori sendotzeko. 12 urte azpiko 60 bat haur bizi dira herrian. Hor daude, baina eskolarik ez dugu. Hori da gure tragedia.

**Egunen batean eskola izatea lortuko duzuela uste al duzue?**

A.E.: Bi saiakera serio egin ditugu eta

dagoeneko nekatuta gaude.

T.E.: Masa kritikoa falta zaigu. Haurrak baditugu, baina oso sakabanatuta.

P.M.: Bi eta hiru urtekoekin hasi beharra dago eta iaz zazpi firma lortu genituen. Eskola sortu daiteke, baina iraupena ziurtatzea zaila.

A.E.: laz ia lortu genuen eskola sortzea, baina arazoa goitik etorri zen. Haur kopuru bat eskatu ziguten eta kopurua lortu genuenean egitasmorik ez genuela bota ziguten. Eurak izan ziren kopuruari garrantzia eman ziotenak eta!

P.M.: Hala ere, kopurura ozta-ozta heldu ginen.

T.E.: Etxebizitza berriak egiten ari dira eta bertara 80 familia etorriko dira. Hemendik lauzpabost urteetara eskola eskatzeko inongo arazorik ez izatea espero dut.

**Herritarrak elkartzeko beste egitasmo garrantzitsu bat Ezkio eta Itsaso lotuko dituen errepidea da.**

A.E.: Hori da beste gabezia nagusia. Ez dakigu Foru Aldundiak bide hori egiteko benetako asmorik duen. Orain hiru aldiz egin behar dugu bidea: jaitsi, lautadan segi eta igo. Bide hori guretzat oso garrantzitsua da; baina Foru Aldundiari oso garestia iruditzen zaio, ez baitio errentagarritasunik ikusten.

P.M.: Ezin da dirutan baloratu.

**Beste beharrik ikusten al duzue?**

P.M.: Itsasoko gunea indartzeko beharra genuen eta lortu dugula uste dut. Etxe berriak daude, jende gazte gehiago dago, dinamika sortu dugu...

R.I.: Alde horretatik, Ezkio pobreak dela uste dut. Lagun gutxiago gaude eta horietatik oso gutxi gara gazteak. Beharbada Udalak etxebizitzak egin beharko lituzke gazteak erakartzeko.

### **Zuena bezain herri sakabanaturik eza- gutzen al duzue?**

T.E.: Ataun, baina San Gregorio eta Aia gune handi samarrak dira gureen aldean. Itsason 50 bat pertsona eta Ezkion 30 bat bizi gara. Gainera Ezkiokoen erdia baino gehiago 60 urtetik gorakoak dira. Itsason erdia baino gehiago gazteak dira eta horrek aurrera egiten lagundu dio.

P.M.: Dena den, gure bileretara gunetik kanpoko baserrietakoak ere etortzen dira.

T.E.: Egia da. Itsasok beti mugimendua izan du. Ezkiokook, berriz, Santa Lutzira jo dugu. Itsasoko auzoa, Alegi, ez da Santa Lutzi bezain indartsua.

### **Bestelakoan, Ezkio eta Itsasoren artean alderik ba al dago? Asko aldatu al da zuen arteko harremana bi herriak batu zirenetik?**

P.M.: Lotura asko indartu dugu. Topaguneak ditugu. Dena den, egia da denek ez dutela parte hartzen. Batzuk batzearen aurka zeuden eta posizio hori mantentzen dute. Kultur etxe honetara etortzea oztopatzen dien barrera psikologikoa dute.

A.E.: Gizakiok halakoak garela uste dut. Urretxu eta Zumarragan, Azpeitia eta Azkoitia... berbera gertatzen da.

P.M.: Bat egitearen ondorioa da.

T.E.: Baina lehenago ere bazegoen Ezkioren eta Itsasoren arteko pikea.

### **Bat egitea ona izan zela uste al duzue?**

P.M.: Ez dakigu Ezkio eta Itsaso egun nolakoak izango ziren elkartu ez balira.

T.E.: Nire ustez, bere garaian ez zen ona izan. Hasteko, ez zirela nahi zutelako elkartu esan behar da. Horren ondorioz, zer edo zer egin nahi zen bakoitzean oztopoak azaltzen ziren. Ezkiok Itsaso

baino biztanle gehiago izan du beti eta urte hauetan guztietan Udalaren %80 Ezkiokoen osatu dute. Alkateari dagokionez, ia beti Ezkiokoa izan da.

P.M.: Itsason bigarren mailakoak sentitu gara beti.

T.E.: Zerbitzu guztiak Santa Lutzin daude. Ezkion eta Itsason bakar bat ere ez dugu. Udaletxea, kultur etxea, mediku etxea... dena Santa Lutzin dago.

### **Zergatik elkartu zineten?**

P.M.: Bestela Zumarragak Ezkio hartuko zuelako. Ezkio eta Itsaso ez ziren kaudimendunak (solbenteak) eta herri han-

## **Aitziber Etxezarreta:**

### *“Abiadura Handiko*

### *Trenak herria erdi-erditik*

### *ebakiko du eta elkarketa*

### *zaildu egingo du”*

diagoak irentsiko zituzten beldur ziren. Itsaso Gabiriarekin elkartzekotan egon zen. Beste herri batzuk ere elkartu eta banandu ziren, baina Foru Aldundiaren agirietan onar daitekeen banantze bakarra Ezkio eta Itsasoren artekoa dela jartzen du. Batzea une eta koiuntura zehatz batean hartu zen erabakia izan zen, baina ez da hausturaren aldeko dinamizarik sortu. Itsasok sekulako biztanle beherakada pairatu zuen 1960tik 1980ra bitartean eta nire ustez banantzea horregatik ez zen eman. Itsason asko hitz egiten dugu herri independentea izateaz, baina ea nork ema-

ten duen pausoa... Sekula ez dugu hain garbi hitz egin gai honetaz komunikabideetan...

T.E.: Nire ustez arazoa hori da: ez dugula hitz egin. Garbiago eta sarriago hitz egin izan bagenu, ez afarietan... Urteetako zama sentimentala mahai gainean jarri beharko genuke. 2008an halako herri txikien independentziak ez du zentzurik, alderantzizko bidea hartu beharko genuke: elkartu egin beharko ginatke zerbitzu gehiago eta hobeak lortzeko. Nik kuestionatzen dudana Urola Garaia mankomunitatea da. Egun ez du zentzurik.

### **Bestelakoan, nola ikusten duzue etorkizuna? Jende asko dago Santa Lutzi ingurura begira.**

A.E.: Etorkizuna ilun ikusten dut: asko ari zaigu kostatzen herri izaera lortzea eta galduko dugun beldur gara. Abiadura Handiko Trenak herria erdi-erditik ebakiko du eta elkarketa zaildu egingo du. Beheko aldea lo-hiria bilakatuko da eta Urretxu eta Zumarragaren auzoa garen sentsazioa areagotuko da. Azkenaldian Urretxuk eta Zumarragak barruko industria guneak kendu eta hona behera bidali dituztela ikustea besterik ez dago.

P.M.: Behekoak ere badatoz... Gipuzkoako landa-eremu on bakarrak ditugu eta dena zementuz beteko dugu.

### **Gauza onik ikusten al diozue etorkizunari?**

T.E.: Erronka Ezkio eta Itsaso indartzea da, baina baliabide gutxi ditugu. Mankomunitatean gaudenez, Anton Arbulu presidentearengana joan beharko dugu eske.

P.M.: Herri bakoitzak dituen hektareen arabera banatuko balitz dirua...



T.E.: Hona enpresak besterik ez dituzte ekartzen, baina behealdean jende mordoxka bizi da eta ezin dugu egin existituko ez balitz bezala. Geroz eta indar handiagoa izango du, baina gora ere begiratu beharra dugu. Horrek ez du esan nahi Ezkio eta Itsasoren artean herri berri bat egin behar dugunik. Beste helburu bat epe ertainera Santa Lutzzi zerbitzuekin indartzea da.

**Gaia aldatuz, nola ikusten dituzue Urretxu eta Zumarraga?**

P.M.: Esan bezala, Itsasokook Beasain aldera jotzen dugu. Dena den, gora bidali gintuzten ikastera.

A.E.: Herri bezala ez dugu joera bat. Bakoitza bere beharren arabera joaten da Urretxu eta Zumarraga.

P.M.: Ni hango kiroldegira joaten naiz.

A.E.: Santa Lutzikook erosketak egitera bertara joateko joera dugu.

T.E.: Urretxu eta Zumarragako jendearentzat Ezkio-Itsaso ez da existitzen. Beraien mundua urbanoa da eta gurea landakoa. Politikoek euren hiru herrietan enbarazu egiten ziena Ezkio-Itsasora bidali dute eta zapal dutako anaiak sentitzen gara. Bestalde, gure herriaren goialdea gauza mitiko bezala ikusten dute.

**Goierriko mankomunitatean hobeto egongo zinetela uste al duzue?**

T.E.: Nik hala uste dut.

A.E.: Antzekotasun handiagoa dugu Goierriin dauden herri txikiekin Legazpi, Urretxu eta Zumarragarekin baino.

T.E.: Gure erronka Gabiria eta Ormaiztegiarekin harremanak estutzea da.

**Zer esango zeniekete urretxuar eta zumarragarrei?**

A.E.: Ez dagoela urrutira joan beharrik

NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

2008  
berrikuntza urtea  
euskadi  
año de la innovación

dena ikusteko... Ezkiora oinez etorri daitezke eta Ezkiotik Itsasora ere oinez joateko bidea badugu.

P.M.: Asko joaten dira Izazpira eta Kizkitzara, baina hortik ez dira pasatzen. Seguru askok ez dakitela Mandubia Itsaso dela.

**Zer esaten dizute Urretxu eta Zumarragako ezagunek?**

R.I.: Etortzeko esaten diet, baina oso gutxitan etortzen dira. Egia esan, hemengo bizimodua eta Urretxu-Zumarragako oso ezberdinak dira.

T.E.: Onerako eta txarrerako. Hemen bizitzea okerragoa dela pentsatzen dut askotan. Ezkio-Itsasoko biztanleen %50 baka-rik bizi da landa eremuan. Gainontzekoak eremu mistoan bizi dira, txarrerako: ez dira batekoak ez besteokoak.

**Hirietako etxebizitzetako erosotasun guztiak al dituzue dagoeneko?**

A.E.: Telebistarekin eta Internetekin ez dugu arazorik, baina baserriak sakabana-tuta daude eta gasik ez dute. Kolektorearekin loturarik ere ez dugu.


T.E.: 50 urteko saltoa eman dugu, baina bidean gauzak utzi ditugu. Zenbait base-rritan ez dugu fosa septikorik, bideetan arazoak dituzte, adineko jendeari eta umeei ezin diegu zerbitzu duinik eskaini... P.M.: Bizimodu hau guk egindako aukera ere bada eta landa-eremuarekin lotutako hainbat proiektu aurrera ateratzen laguntzen digu.

T.E.: Kaletarrek kaleko bizimodua anonimatu ematen dielako maite dute, besteak beste, eta herri txikiek hori ezin dute eman. Ezkio-Itsasora etortzeak anonimatu hori galtzea eta bertako dinamikan parte hartzea suposatzen duela ere argi utzi behar da.



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal



## “Con Pello se bebía mejor”

Alkatetza aldaketak espero ez genituen efektu *alkoholateralak* izan ditu Urretxun. Iñaki Zabalak tabernen legeria betetzeko asmoz ekin dio agintaldiari, eta erabaki horrek zeresan franko eman du barra ertzeko tertulietan. Guk ez dakigu oso ondo legeak zer dioen, taberna bakoitzak ze lizentzia mota duen, Udalak nolako isunak jarri dituen, edo G puntuak honetan guztian zer pin-tatzen duen. Baina, kazetari finak garenez, parrokianoen testigantzak jasotzen aritu gara tabernaz taberna, herriak zer pentsatzen duen jakiteko. Jende bat, tabernak goizago ixteko erabakiarekin kritiko agertzeaz gain, Gaztetxeak tratu pribilegiatua jasotzen duela-eta moskeatu antzean dabil. Jende horrek kontuan izan beharko luke Urretxu-Zumarragako gazteri geroz eta *mazapanagoa* mobilizatzeke gai den taberna ia bakarra dela Gaztetxea, urtean zehar kultur egitarau zabala eskaintzen duela, eta han bizpahiru ginto-

nic hartzeko kreditu bat eskatu beharrik ez daukazula. Agian —eta barkatu gauzak nahasteagatik—, batzuek nahiago lukete Fer's-en hasten den Beasain II etorbidea Buhamez haratago luzatu eta Gaztetxea bera hartzea, baina zorionez ez da hala izango. Eta argi gera dadila aipatu etorbidean gustura sentitu garela maiz, baina hango tabernek bezeroak poteo garaian soilik mobilizatzen dituzte, eta horregatik bakarrik, justua litzateke Gaztetxeak bestelako tratamendua izatea. Bestetik, txantxetan aritu arren, bada Pellorek in halakorik ez zela gertatzen dioenik, garai haietan nahi bezainbeste mozortu gintezkeela, libre ginela gustuko lekuan nahi adina denbora emateko. Bitxia. Ezker abertzalekoak aske poteatzeko eskubidearen aurka, legeria eskuan, eta herriko ordezkari polizialak (ejem) aurrean... errotonda famoso hark baina buelta handiagoak eman ditzake bizitzak.

## Ezkio-Itsasora sarritan joaten al zara? Zertara?

### Zer diozu aldameneko herriaz?



Jose Mari Rodriguez



Bertan lan egiten dut. Beraz, egunero joaten naiz. Herriaren goialdeari dagokionez, azkenaldian ez naiz joan. Dena den, gustukoak ditut bai Ezkio bai Itsaso. Garai batean baino itxura hobea dutela iruditzen zait.

Mari Carmen Lopez



Garai batean sarritan joaten nintzen, lagun batzuk bertan bizi baitziren. Bizitokiz aldatu zuten eta dagoeneko ez naiz joaten. Ezkio-Itsasoko goialdea ez dut oso ondo ezagutzen, baina Euskal Herria berdearen erakusle zintzoa dela uste dut.

Oihane Toledo



Azkenaldi honetan ez naiz joan. Duela pare bat urte Igartubeiti baserria ikustera joan ginen. Itsason ere egon izan naiz inoiz. Nola definitu? Gure eskualdeko herri txikia dela etortzen zait burura.

Pepe Requejo




Palan jokatzera sarritan joan naiz Alegiko pilotalekura. Beste noizbait han inguruan afaldu nuela gogoratzen dut. Egia esan, oso gutxitan izan naiz Ezkio-Itsaso goialdean. Bizikletan ibiltzen nintzenean, berriz, askotan pasatzen nintzen behealdetik. Herri txikia, polita eta nekazal kutsukoa da.

**Gaia:** Zorionak aitona!

**Doinua:** Itsasoari begira

Gorka Quevedo Barrio




Irunen jaio, ta gerragatik  
laister egin behar alde,  
preso lehenik, gatibu gero  
zenbat egoera grabe...  
Mila komeri bizi ta gero  
sosik eta lanik gabe,  
Zumarragara etorri eta  
bizitza hor parez-pare,  
zenbat une zail ta irrifarra  
galdu gabe hala ere!

Pasio handi bat beti buruan  
musika izan da bera,  
danborrarekin festarik festa  
batera eta bestera.  
Gero danborrak egiten ere  
maisua handi izan zera,  
musikarekin gu alaitzea  
izan da zure aukera,  
emandakoa eskertu gabe  
behintzat ezin dugu gera.

Apirilaren lehen egunean  
poza eta zoriona,  
laurogeita hamar urte ez dira  
inondik inora broma!  
Zure anekdota eta kondairek  
oraindik daukate sona,  
etorkizunen ere mantendu  
irri ta umore ona,  
etxeko denon partetik jaso  
mila zorion aitona.

iritziz iritzi

Josu Aztiria



## Utzikeria iraunkorra

Orain urte bete *Kutsadura-muga gainditzen duten enpresak badira gurean* artikulua idatzi nuen Otamotz.com atarian. Euskal Herriko 217 enpresek Europak ezarritako kutsadura-muga gainditzen zutela aipatu nuen. Europak erakundeak kutsadura-muga gainditzen duten enpresen zerrenda publikoa egitera behartzen ditu eta Espainiak EPER erregistroa sortu zuen. Horrelako neurriak egokiak dira enpresen erantzukizuna agerian jartzeko baita herritarren aurrean eta presio-bidea ere izan baitaiteke. Zumarragak airearen kalitateari buruz eman dituen datu kezkarriekin lotura zuzena du. Enpresa zein den denok dakigu eta orain neurriak hartzeko prest omen dago... Ezin da onartu enpresa hauek sekulako etekinak

erdiesten dituzten bitartean sortzen dituzten kostu eta *zehar kalteak* sozializatzea. Dogma neoliberalak: irabaziak pribatizatu, kalteak sozializatu. Dena den, erakunde publikoek zorrotasun handiagoz jokatu beharko lukete ingurumenari eta herritarren osasunari buruz ari garenean. Ingurumena eta garapen "iraunkorra" edo "jasangarria" marketin-tresna besterik ez dira bihurtu eta horretara mugatu dute ingurumen-politika. Utzikeria handia egon da erakunde publiko, enpresa eta herritar askoren aldetik. Orain, ordea, dena da iraunkorra. Iraunkorra ez al da irauteko joera duena? Hori esan nahiko al dute benetan garapen edo kontsumo iraunkorraz hitz egiten dutenean? Batzuen utzikeria iraunkorra ez da jasangarria.

## 1986

### Urretxuko sokatira taldea

Argazkian 1986an Loiolan jokatu zen Gipuzkoako sokatira txapelketan zilarrezko domina lortu zuen Urretxuko taldea ikus daiteke.

Zutik: Isidro Etxaniz, Jesus Agirrezabal, Antonio Zufiria eta Jokin Arzelus.

Makurtuta: Gregorio Irizar, Inixio Izagirre, Anjel Erratzu, Karlos Irizar eta Migel Mari Estonba.



# Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



## ALBISTEAK

1. Bi herriotan PSE-EE garaile.  
(Politika/03-9)
2. Jai-Alai kalea: zer egin dute?  
(Eiluz elkarte/Erreportajea/02-29)
3. Edukiontzia kalean gurutzatu eta erre egin dituzte Urretxun.  
(Politika/02-18)
4. Iñaki Zabalarri elkarrizketa Argia astekarian.  
(Politika/02-22)
5. Greba orokorra izan zen atzo bi herrietan.  
(Politika/2-22)
6. Bertso saio jendetsuak Martxoan Bertsoan.  
(Zumarraga-Urretxuko bertso eskola/Kultura/02-25)
7. Kotxe batek alarma piztu du Zumarragako udaletxean.  
(Politika/03-04)
8. Gizon bat hilik agertu da Etxeberrin.  
(Gizartea/02)
9. Mintzalaguna dendarien artean.  
(Gizartea/ 02-26)
10. XVIII. mendeko euskarazko testu bat Urretxun.  
(Xabi Lasa/EuskaGintza/02-15)

## AZKEN BIDEOAK

1. MB: Bertso pilota.
2. MB: Aldiriko saioa.
3. MB: Motz tabernako kanporaketa.
4. MB: Fox tabernako kanporaketa.
5. Xabier Amurizaren hitzaldia.

## ALDIZKARIA

1. Ezagutzen al duzu negua?  
(Gorka Ojanguren/Bota bertsoa!/133. alea)
2. Athletic argi ibili!  
(Egurra partitzen/134. alea)
3. Lanak ez du sexurik ezagutzen.  
(Erreportajea/134. alea)

## INKESTAK

### Ba al duzu sagardotegietara joateko ohiturarik?

-Bai: %57

-Ez: %43

### Joaten al zara herriko taldeen partidak ikustera?

-Bai, beti: %14

-Bai, noizbehinka: %41


-Ez: %45

### Aste Santuan kanpora joango al zara?

-Bai: %65

-Ez: %35





Joann Sfar

### Klezmer 2: Féliz aniversario, Scylla

Zaila da Joann Sfar-en komiki bat aukeratzeari, azken urteetan 100 baino gehiago argitaratu baititu, zein baino zein gomendagarriagoak. Joann Sfar (Niza 1971) txikidunik adierazi zuen komikiekiko zaletasuna. Izan ere, 15 urte zituela hasi zen bere komikiak argitartzeetara hilero bidaltzen. *Klezmer*-en bi lehen zenbakiak Normak argitaratu ditu gazteleraz. Lan bikain horretan Sfar-ek XX. Mendeko hasierako

Errusiako hegoaldera eramaten gaitu, musikari judu batzuen gorabeherak ezagutzera. Estiloari dagokionez, Sfar-ek ez du birtuosismo hutsaletan denborarik galtzen; marrazkiak historiaren menpe geratzen dira; koloreak ere berebiziko garrantzia hartzen du; izan ere, hau da Sfar-ek akuarela koloretatzen duen lehen komikia; miresgarria da nola menperatzen duen kolorea eta argia.

Lutxiano

Inoren ero ni

Gronholm

2003an BAP!!eko hiru kidek eta gitarrista batek Inoren ero ni taldea osatu zuten. 2004an *Inoren ero ni* diska kaleratu zuten. Eneko Abrego Okene Abrego da orain. Berriro ere hitzekin jolasean. Atzekoz aurrera irakurtzea gustuko zaio nonbait. Drakek Mariano Hurtadori (El hombre burbuja taldeko kidea) pasa dio baxua. Ezkutuko lege bat hautsiz, bost kantuz osaturiko lana kaleratu dute. Eta biniloan

ere plazaratu dute. Interneten dute salgai. Pentsaurrekorik ez. Garai berriak, bide berriak, Bidehutsen eskutik. Bidea osatzen ari da. Xabier Montoia, Gorka Setien eta Borjaren (gitarra jotzailea) hitz mutuak —harribitxia azken honen *Tarantela* poema— kantu ozen egin ditu Okenek. Erritmoen jolasa. Rock gordina izpirituz beltzez jantzia.

Gorka Erostarbe



John Carney

### Once

“Film musikal irlandarra” hiru hitz horiek horrela jarraian ikusteak buruan pizten duen irudia ondorengo izan daiteke: hirusta berdez apaindutako pub batean garagarozale kuadrila bat barran zilipurdika eta mahaietan dantzan. Hori espero duenak ezusteko galanta hartuko du, topikoetatik urrun baitago John Carneyk zuzendutako filma. Istorio aski sinplea kontatzen du filmak: kalean musikari bezala aritzen den gizon gazte

batek emakume bat ezagutzen du musikari esker. Filmeko hirugarren pertsonaia nagusia musika bera da, ederki txertatuta dagoelako eta benetan iaioak direlako bi antzezleak abestiak lantzerakoan. Mundu osoko ikusle askorentzat urteko pelikula ederrena da, noiz behinka agertzen diren harribitxi apal horietako bat. Martxoaren 28an eskainiko da Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea



Hona hemen abendu hasierako gizon-proban ateratako argazkiak.


Javi Alonso





# Anjel Erratzu: Gure kirolen zaindaria

*Anjel Erratzu Urretxun jaio zen, baina haurra zela aita hil zitzaion eta Aizpurutxora bidali zuten amaren familiaren baserrira. Gaztetan bertako ekimenetan parte hartu zuen. Urretxun ezkondu zen eta bertako herri-kirol taldearen sortzaileetako bat da. Nekazaritza batzordean ere urte asmo daramatza. Azken bi legegalditan, berriz, zinegotzia izan da EAJ alderdiarekin.*



Anjel Erratzu, Urretxuko Gernikako Arbola plazako harmaila azpian, apirilaren 12ko desafioa prestatzen ari direnekin.

## **Zein familian jaio zinen?**

Urretxun jaio nintzen, baina jatorriz aizpurutxoarra naiz. Izan ere, nire ama hangoa zen. Aita, berriz, Altxiberkoa zen. Baserri hau desagertuta dago jada. Hemendik Aizpurutxora goazela Urruztitik behera zegoen, baina Zumarragako lurretan. Nire bi anaia zaharrenak Azkoitian jaio ziren eta ni, berriz, Urretxun.

## **Nolatan jaio zinen zu Urretxun?**

Aita Urolako trenean aritu zen lanean gaztetan eta errepublika zalea zen. Gerra bukatu bitartean langile batailoi batean izan zuten zigortuta. Itzuleran errepublika zaleak Azkoitian baztertuak zeudela konturatu zen eta Urretxura etortzea erabaki zuen. Azkoitian eskuindar giroa nagusi zen, aita gerran egondakoa zen, osaba bati heriotza zigorra ezarri zioten...

**Aita gazte hil zitzaizun.**

Bai. Ni jaio eta bi urtera, 45 urterekin, bihotzekoak eman zion. Aita zenaren oroitzapenik ez dut.

**Zenbat anaia-arreba zarete?**

Erratzu abizenarekin hiru. Ama berriro ezkondu zen, beste alargun batekin, eta arreba-atzekoa ere badugu.

**Zuen amaren bizitza gogorra izango zen, bigarrenagoz ezkondu zen arte behintzat...**

Amak bizitza oso gogorra eraman zuen. Garai hartan ez zitzairen inongo lagun-tzarik ematen alargunei. Ni indartu nintzen arte nitaz arduratu zen, baina gero etxetik kanpo lanera joan behar izan zen. Bi urtetan inude egon zen, Algortako familia aberats batean etxean. Orbegozon ere lan egin zuen. Artetxera bidali ninduen, osabaren baserrira. Sei urte nituenean ama berriro ezkondu zen.

**Ama bigarrenagoz ezkondu zenean zuen bizitza zertxobait hobetuko zen.**

Bai, gainera ordurako nire bi anaiak koxkortuak zeuden eta berehala lanean hasi ziren: bata Muxika baserrian eta bestea osabarenean. 16 urte zituztenean amaren ondora itzuli ziren.

**Nola oroitzen duzu haurtzaroa?**

Ondo izan ginen, baina benetako aita falta zela sentitzen nuen. Aizpurutxoko eskolara joan nintzen, 11 urte bete nituen arte. Ondoren ama ezkondu zen baserrian lanean aritu nintzen eta 16 urterekin tailerrean hasi nintzen. Anaia zaharrenaren aholkuz, berriro ikasten hasi nintzen postaz. Eguna tailerrean eta baserrian lanean pasatu eta gero, liburuak mahai gainean jarri eta ahal bezala ikasi nuen. Tomulari maisutza

ikasten aritu nintzen. Ez nuen bukatu, baina oso lagungarria izan zitzaidan.

**Zein tailerrean aritu zinen?**

Hasieran Azkoitiko tailer txiki batean aritu nintzen, tornuan. Han hiru urte egin eta gero, Urretxura etorri nintzen. Talleres Tali delakoan aritu nintzen, Barrenkalen. Garai hartan ofizialek ez zuten diru asko irabazten. Hori dela eta, soldadutzatik etorri nintzen Orbegozon hasi nintzen: laminazioan. Hiru urte egin nituen, istilu txiki bat izan nuen arte. Astelehen batean txapa bat oker sartu nuen eta enkargatuak kargu

*“Oraindik Urretxu eta Zumarragako jende asko ez dut ezagutzen.*

*Bertakoa izateak asko egiten du”*

hartu zidan. Egun txarra izango nuen... Bigarrena nahita sartu nuen gaizki. Horren ondorioz zigortu egin ninduten: oinarrizko soldata jarri zidaten hilabete baterako. Bitan pentsatu gabe, kontua eskatu eta eraikuntzan hasi nintzen.

**Zergatik aukeratu zenuen eraikuntza mundua?**

Mutikotan artzain lanetara bidaltzen nintzenez harriekin zer eraiki pentsatzen egoten nintzela oroitzen dut. Beti izan dut gustukoa eta oso gustura aritu naiz. Azkeneko hamar bat urtetan enkargatu izan naiz, Bruesa enpresan. Duela hiru urte bihotzeko ebakuntza izan nuen eta

alta eman zidatenean enpresak, dagoneko 60 urte nituenez eta ebakuntza izan nuenez, erretiroa eskaini zidan.

**Obra askotan aritutakoa izango zara...**

Ez dut zorte handirik izan, beti herritik kanpo aritu bainaiz: Getxon, Bilbon, Behobian, Iruñan... Egunero etxera itzultzen nintzen, baina autoan kilometro asko egin ditut.

**Eraikuntza mundua benetan gogorra da gainera.**

Arriskutsua ere bai. Lanaren %90 aire librean egiten da eta hori gogorra da. Orain kanpokoak dira horretan lan egiten duten gehienak. Azkenekoz Iruña aldean bi urte eman nituen eta ordurako errumaniar eta hegoamerikar asko zeuden. Ordutik ez zen gutxituko... Ni hasi nintzenean, berriz, %80 galiziarrek ziren. Euskaldun gutxi aritzen dira eraikuntza munduan. Dena den, laminazioa baino osasuntsuagoa da.

**Gaia aldatuz, noiz eta nolatan hasi zinen herrigintzan?**

Aizpurutxon bertan izan zen. 18 urte nituenean Luistarren presidente izendatu ninduten. Auzoko festak, Luistarren eguna... antolatzen genituen. Baserri Gaztedia mugimenduan ere ibili nintzen. Garai hartako apaizek gidatzen zuten eta Gipuzkoan nahikoa indar izan zuen. Bere helburua lo zegoen baserriko jende gaztea esnaraztea zen.

**Noiz etorri zinen Urretxura bizitzera?**

Ezkondu nintzenean, 27 urterekin. Emaztea hemengoa dut, Beidakar baserrikoa. Hasieran bertan bizi izan ginen, gero Mundo Mejor auzoan eta orain Labeaga kalean, Lizeo ondoan. Oraindik Urretxu eta Zumarragako jende asko ez dut ezagutzen. Bertakoa

Anjel Erratzu, eskubikoa, Yurrebaso eta Alberdi aizkolariekin Aizpurutxon.



izateak asko egiten du. Dena den, poli-ki-poliki, bata edo bestea zela, hasi nintzen hemengo jendearekin harremana izaten. Sokatira munduak asko lagundu zidan horretan.

### **Gaztetan ez al zinen Urretxu eta Zumarragara etortzen?**

Negu garaian Aizpurutxon bertan egiten zen erromeria. Uda garaian, berriz, inguruko auzoetako eta mendiko erromerietara joaten ginen. Soldadutzara joan baino pixka bat lehenago hasi ginen Zumarragara etortzen. Horretan hasi aurretik Aizpurutxon ondo moldatzen ginen. Bertan genuen koadrila eta erromeria ondoren neska laguntzea tokatzen ez bazen, tabernara joan, ogitartekoa jan eta musean jokatzeko genuen.

### **Urretxun koadrila sokatiraren bitartez egin zenuela esan duzu.**

Hala da. Ni ezkondu nintzen urtean hasi ziren koadrilen arteko sokatira saioak, Koldo zenak-eta bultzatuta. Ni handik bi

urtera hasi nintzen, 1974an. Sokatirarako taldea aurkeztu zuten batzuek eurekin parte hartzeko deitu zidaten eta garaile suertatu ginen. Goierrri taberna eduki zuen Paulo eta bere bi anaia, nire koinatu ezkongabea, Mendizabalen bizi den Antonio, Etxaburuko Antonio Zabalo, Zuloagako Zipriano eta ni ginen taldekideak. Garai hartan egun osoa betetzen zen sokatira lehiaketarekin, hamar bat taldek parte hartzen baitzuten.

### **Ekimen horretatik jaiotzen al zen Urretxuko Golden sokatira taldea?**

Bai. 1977an sortu zen. Bitarte horretan herriko festen antolaketan ere hasi nintzen. Orduetik hortxe ibili naiz, festen antolaketan, nekazaritza batzordean...

### **Nolatan hasi zinen nekazaritza batzordean lanean?**

Orduan bilerak ez ziren egiten egungo maiztasunez egiten, zer edo zer berezia antolatu behar zenean bakarrik. Ni Leon Arrieta alkate zela hasi nintzen lanean.

Ardien inguruko ekitaldi bat egin zen eta Arrietak aurkezle lana egitea eskaini zidan. Orduetik hor nabil...

### **Zinegotzia ere bazara. Nolatan?**

1991ko hauteskundeetarako alderdi batek baino gehiagok eskaini zidan zerrendetan joatea. Herri Batasuna izan zen atea jotzen lehena eta lehen bileran ez nien erantzunik eman. Handik lasterrera EAJ etorri zitzaidan. Anaiarekin hitz egin nuen. Berak ordurako hiru

*“Janari ekologikoaz hitz*

*egiten da, baina*

*hipermerkatu handietara*

*joatera eta karroa*

*betetzera ohituta gaude”*

legealdi egin zituen Azkoitian EAJrekin. Normala den bezala, bere alde egin zuen. Horretaz gain, nahiz eta ideiekin nahiko ados egon, ETaren hilketak ez nituen ondo ikusten. Hori dela eta, EAJrekin joatea erabaki nuen.

### **Arlo ezberdinetan lanean aritu ondoren, zein lorpeni ematen diozu balio berezia?**

Sokatiraren bitartez herri-kirol taldea sortzea lortu genuen, bere estatutu eta guzti, eta horri garrantzia handia ematen diot. Garai hartan Europan zehar joateko eta dirulaguntzak lortzeko Aldundiak, Udalak... hori eskatzen zuten. 1988an lortu genuela uste dut. 1986an, batez ere, oso talde ona izan genuen. Baina badakizu zer gertatzen

den... Sasoiko jendea zegoen, askok utzi zuten, gazteak sartu ziren, gazteen ez genuen indarrak hartu eta azkenean 1992 inguruan jendea aspertu egin zen. Ordutik festetako herri-kirol ekitaldiak antolatzea izan da gure lan nagusia. Aurten guretzako lokala eman digute, Zumarragako kultur etxean. ButaK 21 zineklub taldekoekin batera gaude.

**Azkenaldian gustura egoteko moduan zaudete... Urretxu eta Zumarragan herri-kirolak susperraldia bizi duela dirudi.**

Ez dugu beste kirol batzuekin konparatzerik, baina beti hala izan da. Aurten koadrilen arteko hirugarren *olinpiadaxoa* izango dugu eta gogoia duenari behintzat herri-kiroletan aritzeko aukera eskaintzen diogu. 1986 inguruan gazteei aizkoran eta harria jasotzen irakasten saiatu ginen, baina ez zuen funtzionatu. Hasten ziren, baina ez zuten behar bezala jarraitzen.

**Baserri mundua ere ondo ezagutzen duzu. Nola ikusten duzu?**

Baserri mundua beti egon da nahiko gaizki. Hemengo baserria fabrika lan eginez defenditu da. Hor lortzen dute erretirorako dirua. Baserriko lana bigarren mailakoa da. Urretxun dedikazio osoa Agerrekoek bakarrik eskaintzen diote: horretarako ondo prestatuta egon behar da, bestela jai baitago. Ipeñarrietakoak ere kalean esnea saltzen ibili dira, baina utzi dute eta larrean ibiltzeko ganadua jarri dute. Baserriak etorkizun zaila du. Janari ekologikoaz hitz egiten da, baina hipermerkatu handietara joatera eta karroa betetzera ohituta gaude. Denda txikiak eta herriko jeneroak jai dute. Ez dago eskaerarik.

1996: Anjel Erratzu, Santa Lutzitako idi-probetan parte hartu zutenekin.



Janari ekologikoa ondo pagatu behar da eta jendeak asko begiratzen dio poltsikoari. Gainera, hemengo baserrietan ezin da bizimodurik atera. Esetarako eta haragitarako ganadua edukitzeko dira aproposak. Haragitarako ganadua duten dezente daude, baina kanpoan ere lan egiten dute.

...

Batzuetan barregura eta guzti ematen dit. Autobideekin eta AHTrekin baserri-tarrak lurrik gabe gelditzen direla esatea txorakeria da. Baserri-tarrak badu nahikoa lur, baina hemen lurra bueltaka ibiltzerik ez dago. Gipuzkoa eta Bizkaitik kanpo, berriz, sekulakoak egin daitezke nahi izanez gero. Hemen haragitarako eta esnetarako dirulaguntzak badaude. Gehiegi beharbada! Beste aktibitatekerik ez duen baserri batean 25-30 ardi ikusiko dituzu. Zertarako? Dirulaguntzak lortzeko. Bestalde, hemen basoa ere garrantzitsua da.

**Ibiltzen al zara baserriko lanetan?**

Ez.

**Zer zaletasun dituzu?**

Ez dut zaletasun handirik izan. Garai batean larunbatetan ere lan egiten zen eta igandean mendira joaten nintzen. Orain, erretiratuta nagoenez, irakurtzea, bertsoaren bat idaztea, Interneten ibiltzea... gustatzen zait. Batzuetan hiruzpalau ordu joaten zaizkit ordenadore aurrean konturatu gabe. Bestalde, egunero paseotxoak ematen dut eta bilerak ere sarri samar izaten ditut. Ez dut aspertzeko astirik izaten.

**Ba al duzu bete gabeko ametsik?**

Ez. Garai batean gustura hartuko nuke etxetxo bat mendi hegal batean, baina ahaztu nuen kontu hori. Poltsikoa murrizta izan dugu beti... Oraingo etxea erosi genuenean izan genezakeen horretarako aukera, baina halako egitasmoetan familia guztia ados egotea behar da.

# UROLA

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

**HARATEGIA URDAITEGIA**

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

# MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**JAVIER Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

# Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com

**Keros Enmarkatzeak**  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA

# SUTAN

Tximiñak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

# Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak  
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90  
☎ 615 75 33 28  
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

# PLAZAOLA

## ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70

# Lanbiza

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

# HERCE

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

# natural optics

**URRETXU**

Lurdes Rodriguez Optiko-optometrista  
Iparragirre, 1-Urretxu  
☎ 943 72 59 68  
urretxu@naturaloptics.com  
www.naturaloptics.com

# asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu  
943 72 59 22  
659 67 89 79

# ALTZARIAK

## MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28  
URRETXU

# TABERNA

## JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com

# Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9-Tl. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com

# D'armanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU  
☎ 943 72 25 13

# belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

# BIONA

**ARozTEGIA**

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

# ALEX-BIBOLAK

alejandro albisua

☎ 943 72 52 22  
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria

# Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE  
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO


Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

Elkarrizketa hau urtarrileko alean hasitako Urola Garaiari buruzko erreportajearen jarraipena da.

# Iñaki Zabala: “Eskualde hau desegituratuta dago”

*Iñaki Zabala Urretxuko alkateari suertatu zaio oraingoan Urola Garaiaren lehenaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egitea. Zabalak gu ere goierritarrak garela, Mankomunitatea artifizialki sortu zela eta dagoeneko edukirik ez duela uste du. Hausnartzea eta oinarri sendoak jartzea proposatzen du.*

Iñaki Zabala, Urretxuko udaletxeko bere bulegoan.



**Urola Garaiak zer egoera bizi duela uste al duzu? Ingurukoekiko atzeratuta gelditu al da?**

Deba goikoa eta behekoa ez ditut zuzenean ezagutzen. Hobeto badaude, ez dakit eskualde bezala ondo antolatuta daudelako den. Ez dut uste hori denik faktore garrantzitsuena. Han gune ekonomiko garrantzitsua dago, batez ere Debagoienan. Hori dela eta, ekonomia ondo doanean gainontzeko gauza guztiak ere hobeto joaten dira. Goierri gertuago dugu eta hobeto ezagutzen dut. Kudeaketa sistema ondo finkatzea lortu dutela uste dut. Ez dakit zenbateraino den eskualdearen berezitasunarengatik. Izan ere herri asko dira eta horrek egonkortasuna ematen du. Hemen nahikoa da hauteskondeek bi herritan aldaketak ekartzea Mankomunitateko korrelazioa eta administrazio kontseilua erabat aldatzeko. Horrek gorabehera gehiegi ekarri ditu azken urteotan.

Goierri masa kritiko zabalagoa dute eta aldaketak suabeagoak dira. Administrazio kontseiluan ez dira aldaketa drastikoak ematen eta garapen agentzia egonkortasunez kudeatu daitezke. Profesionalek ez dute aginte politikoa lau urtean behin aldatuko den arriskua ikusten. Horretaz gain, profesionalak aukeratzeko orduan hobeto asmatu dutela eta langile horiek hemengoek baino babes handiagoa sentitu dutela esango nuke.

### **Zer gertatu da Urola Garaian?**

Mankomunitateak behar ziren, baina oraindik ez dut garbi zergatik osatu zen Urola Garaia izeneko. Ordura arte Goierri bezala azaltzen ginen. Urola Garaia kontzeptua Mankomunitatearekin batera sortu zen. Goierriengandik bereizteko interes politikoak egongo zirela pentsatzen dut. Hemengo politikarien interesak egongo ziren, baina ez dakit Goierri interes bera izango zuten. Seguru aski bai. Hala bake handiagoz lan egingo zutela pentsatuko zuten.

### **Gure eskualdea Goierri dela uste duzu, beraz.**

Edozein zerbitzu antolatzeko Goierri aldeira begiratu izan dugu: zaborra, nekazal kontuak... Naturalagoa da Goierriekin bat egitea. Hala, Lurralde Antolaketa sailaren agirietan Goierriren barne agertzen gara, eskualdeak bi buru izango balitu bezala. Foru Aldundiak ere, lurraldearen antolaketaz ari denean, eskualde bakar bezala ikusten gaitu.

### **Zer ondorio ekarri ditu lau herriko Mankomunitatea izateak?**

Foru Aldundiak lurralde mankomunitatean antolatu beharra zegoela erabaki zuten, oinarritzko zerbitzuak eskaintzeko:

zabor bilketa, ur hornidura, suhiltzaileak... Gauza horiek guztiak urte gutxitan bideratu ziren. Zer gelditzen da? Une honetan ez diot edukirik ikusten Mankomunitateari.

### **Zer eduki izan beharko luke?**

Mankomunitateak ez du edukirik eta Uggasaren historia tristeak bere sinesgarritasuna galdu arazi dio. Gelditu beharra dugu, hausnartzeko. Atzera begiratu behar da zer ibilbide egin dugun, zertan asmatu dugun eta zertan ez, zergatik, biztanleei zer eman diegun... ikusteko.

*“Mankomunitateak ez du edukirik eta Uggasaren historia tristeak bere sinesgarritasuna galdu arazi dio”*

### **Zertan asmatu da eta zertan ez?**

Biztanleek zer pertzepzio duten begiratzeari garrantzitsua da eta nire ustez ez dute Mankomunitateari buruzko iritzirik. Zertarako den galdetuko bagenie ez lukete jakingo zer erantzun eta hori kezagarria da. Uggasari buruz galdetuko bagenie ere, oso gutxik erantzungo lukete zer den eta zer egiten duen. Horretarako ez dugu behar edo beste era batera lan egin behar dugu. Organo bat badugu, horren balioa komunikatu behar da eta herritarrek ona edo txarra den jakin behar dute. Nire ustez egun zenbait organoren berri ez dute. Hori

udal hauek eta eskualdea kudeatu dutenen errua da. Bestalde, esan bezala, eskualde hau artifizialki sortua da. Ez dut uste Urola Garaia kontzeptua erroten denik. Goierriekin lotura izan dugu, ez dakit behar edo sentimendu kontua den. Goierri kontzeptua mantentzen da.

### **Urola Garaia txikia izateak ez al du ekarri ere herri bakoitza bere aldetik joatea?**

Azpi-eskualde honek antzerako tamainako hiru herri ditu. Hirurek antzerako ordezkariak dute eta Ezkio-Itsasorena txikia da, nahiz eta batzuetan epaile izateko balio izan duen. Gure harremanak normalizatzen ez baditugu, ez da harritzekoa Mankomunitatea eta garapen agentzia ondo eramaten ez asmatzea. Urretxu eta Zumarraga bereizten ohitu gara, baina kanpotik datorren batek ez ditu bereizten. Unitate fisiko bakarra osatzen dugu, baina bi administrazio ditugu. Arima ezberdinak ditugu, baina elkarrekin kudeatzea ez da astakeria: beharrezkoa da. Hori egin beharrean, besteak zer egiten duen begira egon gara, markaketa egiten. Horrekin besteak nazkatu ditugu. Legazpik Urretxu eta Zumarraga mokoka ikusi ditu eta bere kasa konpondu ditu arazoak eta sortu ditu egiturak. Hala, eskualde hau desegituratuta dago. Hausnartu egin behar dugu eta, elkarrekin joan behar badugu, lan egiteko oinarri sendoak jarri behar ditugu. Udaletxeetan bata edo bestea egon, oinarriak aldagaitzak izan behar dute. Herritarren dirua ezin da alderdi eta interes politiko zehatz batzuen arabera xahutu. Une oro tendentzia aldatuz, ton-toarena egiteaz gain, jendeari barre egiten diogu.



**Inorengana hurbiltzeko ere ez da oso gomendagarria.**

Naturalena pixkanaka goierritarrengana hurbiltzea litzateke. Kanpotik behintzat, kudeaketa txukuna egiten dutela dirudi. Gure eskualdeak ere egin zuen plangintza estrategikoa, baina dokumentu hori apal batean gelditu zen. Goierrri behean, ordea, lehen plangintzak zioena bete dute eta orain bigarren plangintza egin dute eta dagoeneko exekutatzeko ari dira. Epeak ondo jarrita dituzte eta jarraipena ondo egiten dute. Gauzak ondo egiten ari dira turismo, nekazaritza eta industria arloetan. Mundu guztia ez da gustura egongo hartutako erabakiekin, baina aurrera eramaten dituzte. Hemen nora eta nola joan behar dugun eta zer baliabide behar ditugun zehaztu behar dugu. Gero baliabide horiek jarri egin behar dira. Bestela, aurrekoan gertatu zen bera gertatuko da. Gauza on bakarra lortu genuen: UGLE abian jartzea. Horrek ere oztopoak izan zituen... Bertako lan taldea Mankomunitateak, Uggasak eta udalek zituzten liskarren gaineratik pasa zelako lortu zen. Mankomunitateari eta Uggasari esker egin den beste ezer ez dut ikusten.

**Herritarrek mankomunitateko organoak ez dituztela ezagutzen esan duzu. Komunikazioak ere kale egiten al du?**

Gu diru publikoa hiritarren onerako kudeatzeko gaude. Erabakitzen diren gauzak jakinarazi egin behar zaizkio hiritarrari. Herritarrei zer nahi duten azaltzeko eta egiten ari garenari buruzko iritzia emateko aukera ere eman behar zaie. Norberaren lana hobeto egiteko elementua da. Turismoa aktibatzeko ere ona da. Herritarrek zer egiten ari den jakin behar

dute. Azken finean, kanpotik datozenek monumentu batzuk ikusiko dituzte, baina batez ere jendea. Herritarrek gure diruaren zati bat jendea hona etortzeko eta etortzen direnak gustura sentiarazteko erabiltzen dugula jakin behar dute. Kanpora joatea eta hango jendeak kasurik ez egitea ez zaigu gustatzen. Hona etortzen direnak ongietorriak sentitu behar dira eta hori hemengo jendeak eskaini behar dio, ez Antigua erakusten ari denak.

**Etorkizunera begira, zein aukera ditu Urola Garaiak? Ezkio-Itsaso, adibidez, zeresan handia ematen ari da.**

Mundu guztiak bertako zoru industrialak mugarik ez duela uste du. Bestalde, AHT

*“Legazpik Urretxu eta Zumarraga mokoka ikusi ditu eta bere kasa konpondu ditu arazoak eta sortu ditu egiturak”*

eta bere geltokia ere bertan ikusten dituzte. Geltokia jartzen bada, bere ingurua pabilioiez beteko da. Autobidea ere pasatu da. Inguru hori *zabortegi* baten pareuzteko arriskua dugu. Gainera, norbaitek bertan erraustegi bat eraiki nahiko duen beldur naiz. Oraindik ez da erabakirik hartu, Sasietaren ordezkoa behar dugu eta hori nonbaiten kokatu beharko da. Halakoak herri txikietan jartzeko joera dago, horiek zalaparta sortzeko aukera gutxiago baitute. Ez dakit nire paranoia den, baina adi!

...


Bestelakoan zer dugun? Nahiko ondo bizi garen 26.000 pertsona. Herriak nahiko txukun ordenatuta daude eta hobeto antolatzeko aukera dago. Izan ere, hemendik 20 urtera erlikia industrialak ez dira hor egongo eta horien tokian badugu zer antolatu. Bestalde, Antigua erreferente garrantzitsua da eta Urretxun Santa Barbara ingurua dugu, baina urretxuarrok eta zumarragarrok bakarrik aprobetxatzen dugu. Igerileku eder bat ere badugu. Horri urte guztian atera behar zaio zukua. Badugu zer egin. Bestalde, autobidea bukatzeak zer ekartzen digun ikusi beharko da. AHT etortzen bada, azpitik pasako da eta aterako den lur horrekin guztiarekin zer egin pentsatu beharko da. Baita lur azpiko urarekin zer gertatuko den ere. Etorri behar bada, kalteak minimizatzen eta abantailak lortzen saiatu beharko gara. Horretarako, aurretik erreakzionatu behar da.

**Turismoaz hitz egin dugu. Urretxu ez dago Lenburren. Nola ikusten duzu auzi hori?**

Alkatetzatik turismoa kudeatzeko zer dudan begiratu behar dut eta Lenbur bakarrik ikusten dut eskualdean. Bere esperientzia eta bere kudeaketa ahalmena erabili beharko dugu. Beste gauza bat sortzeak ez du zentzurik. Ez bazaigu gustatzen, alda dezagun. Eurekin harremanetan jarri naiz eta turismo aldetik zein erronka ditugun jakinarazi diet. Bi museo ditugu eta beste bat egiteko asmoa zegoen. Dena den, oso zaila iruditzen zait Iparragirre museo estatiko batean sartzeta. Zer jarri behar dugu? Ez dugu ezer. Bere figura irudi bezala erabili behar dugu, orain arte baino askoz ere gehiago.

# Xabier Murugarren: Athleticetik Urolara

*Duela ia 10 urte, 1998ko uztaileko alean, Otamotz aldizkariak Xabier Murugarren futbolari zumarragarrik Athleticekin fitxatu zuela iragarri zuen eta elkarrizketa egin zion. Denboraldi bakarra eman zuen Bilbon. Ondoren Antiguoko eta Beasain taldeetan arituzen eta lesio larria izan zuen. Denboraldi honetan Urolara itzuli da. Berarekin izan gara bere futbol ibilbideaz hitz egiten.*



Xabier Murugarren, Athleticekin fitxatu zuela jakitera eman zuen 1998ko uztaileko Otamotz alearekin.

Murugarrenek Athleticen deia “pozez” jaso zutela, baina bizimodu berrira egokitzea kosta zitzaiola oroitzen du. “Etxeko guztiongan ilusioa piztu zuen eta ez genuen bi aldiz pentsatu, baina 14 urterekin hara joatea gogorra da. Gurasoak ez zeuden nirekin eta hasieran lagunik ez nuen. Gogorra izan zen. Derioko seminarioan nengoan, beste 20 bat pertsonarekin batera. Zaharrenek 19 urte zituzten eta gazteenak gu ginen. Gainontzekoak nire egoeratik pasatakoak zirenez, lagundu egin zidaten. Penaz joan nintzen handik”. Zumarragako futbolaria errespetuz gerturatu zen Lezamara. “Hasieran beldur pixka bat nuen, jokalaria onak egongo zirela bainekien. Nik ere besteek bezain ondo edo hobeto egin nezakeela ikusi nuenean, gozatzen hasi nintzen”. Garai hartan Dani Aranzubia, Carlos

Gurpegi eta Fernando Llorente ere bertan zeudela oroitzen du. Bere taldean, berriz, Athleticen lehen taldearekin partidaren bat edo beste jokatu zuten Gorka Azkorra eta Jonan Garcia zeuden. Murugarrenek partida dezente jokatu zituen, baina ez zioten denboraldi gehiagotan aritzeko aukerarik eman. "Hilabete batzuk behar izan nituen egokitzeke, baina gero oso gustura aritu nintzen. Hala ere, gauza arraroak gertatu ziren. Ikuskatzaileek jokalaria berriak ekartzen dituzte eta horiei tokia egiteko beste batzuk bota behar dira. Beste batzuek nik baino gutxiago jokatu zuten, baina Gipuzkoako herri txiki batekoa botatzea errazagoa zitzaiela uste dut. Bestalde, Lezamako arduraduna zen Amorrorturekin ez nintzen ondo moldatu".

Bere entrenatzailea orain Espanyol taldean dagoen Ernesto Valverde izan zen eta honekin hobeto moldatu zen. "Valverde primerako pertsona eta entrenatzailea da, oso jatorra. Beti gure gainean egoten zen eta oso ondo moldatu nintzen berarekin. Urte bukaeran entrenatzaile onenari saria eman zioten eta niri oparitu zidan. Berarekin harremana galdu dut, ez dut bere telefono zenbakirik, eta pena handia ematen dit. Gainontzekoekin ere ez dut harremanik. Telefono zenbakiak hartu nituen, baina...".

Zumarragako futbolariak Espainiako Txapelketan ikusi zuen Athleticen etorkizunik ez zuela. "Partida guztiak jokatu nituen eta finalerdietan ere zelaian izango nintzela uste nuen. Valverdek berak hori esan zidan, baina Amorrortu azaldu zen eta partida aulkian hasi nuen. Amorrutu handia eman zidan. Piterman eta enparaez hitz egiten da, baina toki guz-

tietan gertatzen dira gauza arraroak", aipatu du.

Athletic utzi zuenean, Valverderen laguntza izan zuen futboleko jarraitzeke. "Talderen bat aukeratzeko eta ni bertan sartzen saiatuko zela esan zidan. Antiguokora joatea ondo egon zitekeela esan nion. Jubeniletako lehen bi urteak eman nituen bertan. Han ikusitakoaz nazkatuta Urolara itzultzea erabaki nuen, baina lagun batek Beasainera joateko esan zidan. Jubenil taldean proba egin nuen, baina Beasainen ez diete kasu handirik egiten beheko taldeei. Hori dela eta,

## *"Urte bukaeran*

### *Ernesto Valverderi*

#### *entrenatzaile onenari*

#### *saria eman zioten eta*

#### *niri oparitu zidan"*

herrira etorri nintzen. Bi denboraldi zoragarri eman nituen Mitxel Badiolarekin eta Iñaki Aranzadirekin".

Gero, lesioa izan zuen meniskoaren kanpoaldean. "Ebakuntzak ez zuen zailtasunik. Hilabete eta erdira korrika egiten hasi nintzen, baina mina sentitzen nuen. Medikuek ebakuntza ondo egin zutela eta bi irtenbide zeudela esan zidan: menisko osoa kentzea edo futbola uztea. Meniskoa ez nuen galdu nahi, luzera hezurak gataste egiten baitira eta protesia beharrezkoa izan baitaiteke. Hori dela eta, Urolako mutilak entrenatzen hasi nintzen. Azkenaldian belaunean minik nabaritu ez


dudanez, berriro jokatzen hastea erabaki dut", esan du.

Erritmoa hartzea kostatu zaio. "Bi urte eman ditut jokatu gabe eta hori asko nabaritzen da. Oso gustura nabil, futboleko jokatzeke beharra bainuen. Harra barruan dut. Ama kezkatuta dago, baina...", onartu du.

Murugarrenek 25 urte besterik ez ditu, baina dagoeneko futbolaren gazi-gozaok ezagutu ditu. "Egia esan, ez dakit horren gaztetan kanpora joatea ona izan zen. Nik ere askotan galdetu diot hori neure buruari. Beharbada hobe izango da etxetik apur bat beranduago ateratzea, baina ez dut atzera bueltatzerik. Gauzak ahalik eta hobekien egin ditut. Ez dago zertan damutu beharrik. Saiatu egin naiz eta ez dut nire burua zigortu behar gehiago lortu ez dudalako", aipatu du.

Orain futbolaz gozatzeko gogoia du. "Kirol hau atsegin dut eta lagunekin aritzearekin eta mutikoekin entrenatzearekin ez dut nahikoa. Lehia, egurra ematea... beharrezkoak ditut". Urolan ondo hartu dute. "Beteranoa naizela suposatzen da. Gure lanetako bat gazteei irakastea da. Dena den, ezin diegu asko eskatu, tope baitabilta. Aldagelan sekulako giroa dugu: ezagutu ditudan gainontzeko taldeetan baino sanoagoa da eta presio gutxiago dugu".

Berak bezala punta-puntako talde batera joateko aukera duten gazteen helburua gozatzeko izan behar dela dio. "Ez dezatela euren izaera horregatik aldatu eta duten guztia eman dezatela, apaltasunez. Zer edo zer gaizki ateratzen bazaie, ez daitezela kezkatu. Lanean jarraitu dezatela. Futbola benetan atsegin badute, aurrera egitea lortuko dute", amaitu du.



**Alex Areizaga**

Informatika

### ***MPEG streamclip***

*MPEG streamclip*, bideo dokumentuak (bideoak) formatuz modu erraz batean aldatzeko aukera ematen digun programa da. Bideo formatuek arazo asko eman ohi dizkigute, eta askotan zerbeit ikusi ezinda izaten gara gure ordenagailuko erreproduzitaileek ez dituztelako bideo horien formatuak ulertzen. Horrela, askotan izan gara bideo bat formatuz aldatu nahian (.avi-ra edo .mpeg-ra pasatzeko adibidez) eta ezin eginik. *MPEG streamclip* programarekin, arazo hau konpondu ahal izango dugu, eta oso modu errazean gainera. [Http://www.squared5.com/](http://www.squared5.com/) helbidetik jaitsi dezakegu doan, eta bai Windowserako eta bai Macintosharako bertsioen artean aukeratu ahal izango dugu. Ingelesez badago ere, oinarrizko funtzioak ditu, eta hizkuntza ez da arazoa erabiltzerako orduan.



**Deiane Perez**

Osasuna

### **Luzapenak**

Luzapenak, giharren tentsioa murrizten eta mugimendu libreagoa lortzen laguntzen digute. Luzapen metodoak, suabeak, motelak eta pertsona bakoitzaren gihartentsiora eta malgutasunera egokituak izan behar dute. Ariketa fisiko bat burutzen hasi aurretik, tartean eta ondoren egin daitezke. Era berean, bizitzako edozein jardueratan (lanean, aisialdian...). Luzapenak erregulartasun batekin egiten baditugu, bere onurak azkar sentituko ditugu: gihar-tentsioa murriztea, gorputza erlaxatzea, mugimenduen koordinazioa hobetzea, minei edo lesioei aurre hartzea eta zirkulazioa bizkortu eta hobetzea besteak beste. Luzapen bat egiten dugunean ez da inoiz minik sentitu behar, tentsio suabea sentitu eta hau 30 segundutik minutu batera mantendu behar da gutxienez. Tarte honetan, tentsioa nola jaisten den sentituko dugu. Tentsioaren sentsazioa asko jaisten bada, gehiago gehitu diezaikegu. Luzapenari arnasketa motela, kontrolatua eta erritmikoa gehitzea garrantzitsua da. Arrakasta, erregulastasunean eta neurritasunean dago.

# KTA

Nik ez nuen sinetsi, eta kontatu balidate ere ez dakit egingo nukeen. Iritsi zitzaidan, beste hainbeste gauza iristen zaizkidan bezala. Baina ez nion kasurik egin. Beste bat askoren artean. Oporrik ez dudanerako bidaia merkeak; legez kanpoko errezeta gabeko botikak; konfesa ezin daitezkeen argazkiak; sekula iristen ez den saria omen duten galdetegiak... Haiek bezala joango zela pentsatu nuen. Urak dakarrena urak daraman bezala, edo haizeak eramandako hitzen moduan. Niri ez zidan inork abisatu.


E-MAIL HAU MUNDUAN ZEHAR ZABALTZEN DIREN KATE HORIETAKO BESTE BAT DA.

Zu eta ni jaiotzea oraindik idatzirik ez zegoenean, inongo lurralde galdu batean, orain arte bezala anonimatuari mantendu nahi duen pertsona batek eman zion hasiera.

Aspaldikoa baita ipuinen kontu hau. Arabiarrek mila gau eta bat gehiagotan lokutorioetan susmagarri izaten hasi baino askoz lehenagokoa. Izurriak beltzak zirenekoa European eta siglez izendatzeko ohiturarik ez zegoeneko; DKM-rom gogoan. Edota erromesaldiak fedez, eta hala beharrez oinez egiten zirenekoa; esan nahi da, Canterburyk txokolate marka bat soilik gogorarazteko beldurrik ez zueneko.

Ahoz aho, letraz letra, buzoiz buzoiz... ibili ondoren ZUK IRAKURRI BADUZU EZ DA KASUALITATEA IZANGO.

Oraingoz ez da jakin katea hautsi zutenei zer gertatu zaien, baina liburuetan jasota dago ipuinek behin batean, erregeak erreinuko emakume guztiak heriotzara kondenatu zituenean, Scherezade salbatu zutela; eta monarka liluratu. Behinola, dama txolin eta zaldun axolagabeak izurritetik eta asperduratik babestu omen zituzten Florentzia ustean...



KATEARI JARRAIPENA EMAN NAHI IZANEZ GERO NAHIKOA DUZU E-MAIL HAU HELERAZI DIZUNARI IPUIN BAT OPARITZEA IPUINTRUK. BERE GOZAMENERAKO ETA OTAMOTZEKO LITERATURA ATALEAN ARGITARATZEKO BAIZIK EZ DA ERABILIKO.

Zu bezala, ni ere sarean erori nintzen. Eta ia konturatu gabe gainera. Izan ere, ez dakit zergatik, baina beste asko irakurtzen ez ditudan arren, ditxosozko mezu hura bai irakurri nuen. Denetariko argazkiak; oporrik ez dudanerako bidaia merkeak; sekula iristen ez den saria omen duten galdetegiak; legez kanpoko, errezeta gabeko botikak... Hau beste kontu bat izan zen. Harrapatuta nengoen.

Ezjakin hasi nintzen eta zirrara berezirik gabe bukatu nuen. Errazegi, eta konturatu nintzenerako beranduegi zen. Ez zuen letra txikienean ere jartzen zer gertatuko zitzaien kateari jarraipenik ematen ez zionari. Baina, zeinek jakin ipuinik kontaktzen ez zutenek mozten zuten katea, edota katea mozten zutenek ez zuten kontaktzen?

Bada ezpada, hala bazan ez bazan, ni zu banintz, kontaktzen hasiko nintzan...

[ipuinak@otamotz.com](mailto:ipuinak@otamotz.com)

### Eduardo Elias

*Eduardo Elias brasildarra 2004an etorri zen herrira. Sao Pauloko herri txiki batekoa da eta aparejadore ikasketak egin zituen. 2001ean bere lagunik onena Salamancara joan zen gaztelera ikastera eta berak ere mundua ezagutzeko gogoaz zenez lagundu egin zion. Ondoren Madrilén bizi izan zen. Bertan Iñaki Mariñelarena zumarragarra ezagutu zuen eta honek Euskal Herrira etortzera gonbidatu zuen. Ondo moldatu da. Alaska tabernan lan egiten du eta Karmakros antzerki tailerreko kidea da. Aurki Eliasek berak idatzitako antzezlanak estreinatuko dute.*

#### **Zer izan nahi zenuen umetan?**

Aktorea.

#### **Aisialdian zer egitea atsegin duzu?**

Antzerkia. Bestalde, duela gutxi saloi-dantza ikastaro batean hasi naiz.

#### **Bizitzeko toki bat?**

Salamanca. Bertan nire bizitzako urterik onenak eman nituen.

#### **Gustuko aktoreak?**

Michelle Pfeiffer eta Al Pacino.

#### **Eta herrikoen artean?**

Estitxu Zaldua eta Juanlu Escudero.

#### **Zer botatzen duzu faltan Brasiletik?**

Familia. Urtean behin joaten naiz bisitatzera.

#### **Zein euskal ohitura edo festa atsegin duzu?**

Zumarragako jaiak Urretxukoak baino nahiago ditut. Santa Isabel egunean Antiguara joatea asko gustatzen zait.

#### **Ba al da jasan ezin duzun euskal ohituraren bat?**

Ondo integratu naiz eta hemengo ohitura guztiak onartu eta errespetatzen ditut.

#### **Zer diozu bertako Inauteriez?**

Gatzgabeak iruditzen zaizkit. Urtero Brasilgo Inauterien izpiritua gerturatzeko saiatzen naiz.

#### **Futbolzalea al zara?**

Ez asko. Nahiago dut boleibola.

#### **Ilhoriak ala beltzaranak?**

Ilhoriak eta beltzaranak.

#### **Egindako azken oparia?**



Poltsa lagun bati.

#### **Eta jasotakoa?**

Duela gutxi asko jaso ditut, nire urtebetetzea izan baita.

#### **Data bat?**

Amaren urtebetetze eguna: ekainaren 13a.

#### **Neska eta mutil izen bana?**

Maria eta Mikel.

#### **Zein egunkari irakurtzen duzu?**

El Diario Vasco.

#### **Gustuko telebista saioa?**

*Fama*. Tabernan arratsaldero ikusten dugu.

#### **Bereziki gorroto duzuna?**

Txutxumutxu saioak.

#### **Pelikula bat?**

Asko. Bat aipatzearen, *Breve encuentro*.

#### **Liburu bat?**

Nire urtebetetze egunean oparitu zidaten bat irakurtzen ari naiz: Pedro Almodovarren *Patty Diphusa*.

#### **Soinu bat?**

Itsasoko olatuena. Denbora dudan bakoitzean kostaldera joaten naiz. Donostiako Gros hondartzan eseritzea asko atsegin dut.

#### **Usain bat?**

Kafearena, nahiz eta kafea ez dudan atsegin.

#### **Janari bat?**

Pasta, era guztietara.

#### **Ura ala...**

Ura.

# La★Salle Legazpi

Zumarraga - Urretxu



## Irakasten eta hezitzen

Matrikulazio epea: martxoaren 31tik apirilaren 11ra

Bilera eguna: apirilaren 2an, 15.00etan eta 19.00etan

☎ 943 72 15 14 - Fax: 943 72 56 73



Euskadi



# urretxu-zumarraga ikastola 0 TIK 18 RA GEUREKIN



Ikastola zabalik 7:15etik 18:30era, uztaila bame



2 0 0 6



**Urretxu-Zumarraga Ikastola**  
Pagoeta z/g. URRETXU  
Tf. 943 72 00 26, 943 72 21 12  
E-mail: [urretxu@ikastola.net](mailto:urretxu@ikastola.net)  
[www.uzikastola.net](http://www.uzikastola.net)



**URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLA**

